

**Nortasuna eta kultura osasun eta gizarte
esparruan laguntza bestela gauzatzeko**

KILT

KNOWLEDGE IDENTITY LANGUAGE TOOLS

**Euskal Herria / Eslovakia /Italia (Emilia-Romagna)
Katalunia / Britainia Handia (Eskozia)**

***** 2013ko urritik 2015eko irailera *****

EGITASMOAREN AITZINATZEARI BURUZKO NOTA

- 2014ko uda -

**Leonardo da Vinci –Berrikuntza Transferentzia 2013
Programa europarraren kariatara egin proiektua**



KILT egitasmoaren printzipio eta helburuak

KILT egitasmoa (-Knowledge Identity Language Tools – “Hizkuntza eta kultura tresnak sortu, gizarte esparruan lagundua den pertsonarekiko harremana errazteko”) ETXARRIko AFMRak sortu zuen, kalifikazio emaila diren zentroetako profesionalek bai eta ere azken urte hauetako partaide europarrek egin oharpenen ondorioz.

KILT egitasmoa arazo berezi batetik abiatu zen, hau da, osasun, gizarte eta gizarte-medikuntza arloko profesionalek maiz aurkitzen dituzten zailtasunetatik, laguntzen dituzten pertsonekiko harreman pertsonala eta intimoa sortzeko eta bizirik atxikitzeko.

Etxarriko AFMR-aren lan eremuari dagokionez, AMP-ek(laguntza mediko-psikologikoak) eta AVS-ek (gizarte-bizi laguntzaileak) adibidez, ongi ulertu eta kontuan hartu behar dituzte ikusten dituzten adinekoen gizartearen eta kulturaren ezaugarriak, bereziki beren etxeetan egoten diren euskaldun xaharrenak. Hau, pertsonaren eta berezkoak dituen baloreen elkarrekiko errespetuan oinarritu harremana sortzeko, lehen kontaktuan berean, eta pertsona lagundua izanen den denbora osoan iraunarazteko.

Era berean, Eslovakia ekialdean ijitoekin lan egiten duten gizarte-langile eslovakiarrek edo Boloniako, Bartzelonako edo Edinburgheko etorkin berrieekin ari direnek elkarrenganako errespetu honen berenganatzeko aukera ukan behar dute, metodo eta tresna egokien bidez : jarrera hau ezinbesteko lehen urratsa da laguntza ahal bezain eraginkorra ekartzeko.

Ahalmen berezi honen garatzeko -osasun eta gizarte formakuntza zentroetan orain arte landua denaren osagarri liratekena- **KILT** egitasmoak formakuntza moduluen eta kit pedagogiko berezien ekoiztea, probatzea eta hedatzea du xede, medikuntza eta gizarte arloko langileen gaitasunak indartuz, sortuko duten harremanean besteren kultura eta hizkuntza berezitasuna integra dezaten.

Bartzelonako Vall d’Hebron Ospitaleko Ikerketa Erakundeak eta Euskal Kultur Erakundeak egin lanei esker, baita ere orokorki 8 partaide europarrek bildu esperientziarekin ¹, tresna “generikoak” garatuko dira, kultura desberdinei egokitu ustiatze baliagarriak eginen eta Europako lurralde-jendarte desberdinetara eraman daitezken modelizazioak ekoiztuko.

1

Ikus 7. orrialdean, 5 herri europarretik datozen partaideen zerrenda

Proiektuaren aitzinamendua

KILT egitasmoa, 2013ko urriaren 1ean hasi zena 24 hilabetez irauteko, “Leonardo Berrikuntza Transferentzia” europar programan sartzen da eta bere kudeaketa orokorra gai eta denborazko sekuentzietan antolatua da.

Europar programaren esparruan egoteko, ondoko antolaketa-eskemaren bitartez abiatu da partaidetza:

- **“Tresna generikoen produkzioa”** : fase honetan, 2013ko abendutik 2014ko uztaileira iragan dena, formatzaile, pedagogo eta profesionalen 5 topaketen bitartez probatzeko tresnak ekoiztu dira. Gaur egun fase hori bururatzen ari da, uztailearen 24 eta 25eko Edinburgheko mintegia eta batzorde eragilearen lanek bururapena eman diote fase honi, ontzat emanez garatu elementu guztiak.
- **“Tresna baliagarrien ekoizpena eta proben gauzatzea”** : fase honetan aitzinetik ekoiztu tresna generikoak egokitzen eta probatzen ahalko dira, 2014ko irailetik 2015eko uztaileira, bost esperimendazio-lurraldeetan eta aitzinetik begistatu publiko batekin.

Etxarriko AFMR-ak tresna egokituak probatuko ditu bere zentroan, formakuntzan diren AMP eta AVSekin, 2014ko azaroa eta 2015eko otsail artean. Denbora berean proba sekuentzia bat proposatuko da jadanik lanean ari diren profesionaleri, haien erakundeetan KILT tresnen “formakuntza jarraikia” atala ebalua dezaten. Informazio / sentsibilizazioa egingen da ere gizarte-esparruan lan egiteko gogoia dutenekin (animatzaile eta hezitzaileak).

- Bestalde, proiektuaren denbora osoan iraunen duen ardatz berezi bat proiektuaren inguruko **“komunikazioari”** eskainia da eta emaitzen **“barreiatzeari”**.

Lehen etapak KILT egitasmoari irudi bat emateko izan dira, bereziki logo batekin eta barne-komunikaziorako web plataforma baten bitartez. Urrats handiagoak egingen dira 2015ean zehar eta bereziki, Etxarri dagokionez, lurraldeko egitura profesionaleri baita ere geriza-erakundeeri begira eta, orokorkiago, UNAFORIS sarean elkartuak diren gizarte-lan alorreko formakuntza-zentroeiri begira. Ahantzi gabe eskualdeko eta Frantzia mailako prentsa berezitua.

- Zeharkako ikuspegi batekin, *in itinere* **“ebaluazioa”** egiten ari da : hau partaidetzaren funtzionamenduari buruz, landuko eta aterako diren emaitzei buruz eta hastapenean igurikatzen zenari ekarri dioten erantzunari buruz.

Ebaluazio honetarako, KILT-eko partaideek adituei dei egin dute, eskaintza publiko baten bidez. Atxikia izan den bulegoak programa europarrak eta haien prozesu bereziak ongi ezagutzen ditu, eta zinezko gaitasuna du aplikazio eremu honetan.

- Azkenik, **“Kudeatzea eta koordinatzea”** funtsezko funtzioa da : proiektu osoaren eta partaidetzaren koordinazioa, baita ere administrazio eta diru kudeaketa guzti eramaten ditu Oinarrizko funtzio hau Etxarriko AFMRak du zuzenki segurtatzen.

Ateratzen ari diren perspektibak

Goizegi izanik ere, KILT ekoizpenen lehen perspektiba bat atera daiteke, probatu tresnak eta igurikatu emaitzak erakusten dituen.

1. Gogoeta pedagogikoaren aitzineko baldintzak

Etxarriko sartze-mintegian, 2013ko abenduan, KILT tresna pedagogikoak sortu aitzineko baldintzak finkatu ziren. Bost herrietako sozial eta osasun alorretako lanbide mota guzien beharrak agertarazi ziren eta kolektiboki esplikatuz.

“Armarriaren” teknikaren bidez –adierazpen kolektiboa errazten duena– nortasuna, kultura eta gizarte-lokarriaren arteko lotura baloratua izan zen eta honela irudikatua:

Desberdintasunak... Entzun... Errespetatu

Hitz gakoak...

- Estimua
- zubixka (“bridge”)
- indibidualitatea
- aniztasuna
- zuzentasuna
- trukatu
- Ezagutu
- Partekatu
- Komunikatu

Harremanak ekartzen duena


- desberdintasuna
- zuzentasuna
- hautua
- ongizatea (“well being”)
- elkar aberastea ++
- prebentzioa
- harreman berria (“new relationship”)
- gizarte-kohesioa

Harremana sustatzen duena

- mugimendua
- jakin-mina
- Enpatia
- Konfiantza
- Ulermena
- Errespetua
- Elkarrekikotasuna
- Desberdinki pentsatu

Harremana tratatzen duena

- irudikapena
- konexio eza
- borondate eskasa
- beldurra
- zurruntasuna
- ezjakintasuna
- egozentrismoa
- intolerantzia



Lehen azterketa gurutzatu honen bidez, behar nagusiak finkatu ziren 2014ko martxoan Edinburghen iragan pedagogia-taldearen bilkuran:

- Kultura aniztasuna begi bistan ukan , pertsona, familia edo talde baten kultura ulertzerakoan;
- Eguneroko esamolde sinpleak ezagutu eta erabili besteen hizkuntzan (eta lengoaian);
- Pertsona baten bizi-usaiak ulertu;
- Komunikazio eta negoziazio tresnak menperatu (noiz, non, nola, zein egoeratan komunikatu bestearekin ?);
- Harreman-sistema bat garatu beste profesional batzuekin (*KILT egitasmotik kanpo*).

Azpitaldeetan, beharrak zehaztu dira eta lehen pedagogia-proposamenak sortu, honela laburbiltzen direnak:

- ❖ KULTURA ANIZTASUNA BEGI BISTAN UKAN PERTSONA, FAMILIA EDO TALDE BATEN KULTURA ULERTZEKO;
Gizarte edo osasun langileak jarrera profesionala ukan behar du, honi esker lagundua den pertsonaren izana ez du sekula baztertuko, bere kultura edozein izanik ere.
- ❖ EGUNEROKO ESAMOLDE SINPLEAK EZAGUTU ETA ERABILI BESTEEN HIZKUNTZAN (ETA LENGOAIAN);
Ez-ahozko komunikazioa funtsezkoa da harremanean sartzeko eta enpatian izateko; harremanaren lehen aitzin-baldintza da (hizkuntza menperatu aitzin).
- ❖ PERTSONA BATEN BIZI-USAIK ULERTU
Pertsona bat laguntzea suposatzen du aldez aurretik lan bat egitea bere bizi-istorioa, ibilbidea, eguneroko errealitatea eta ordu arte eraman hautuak kontuan hartzeko.
- ❖ KOMUNIKAZIO ETA NEGOZIAZIO TRESNAK MENPERATU (NOIZ, NON, NOLA, ZEIN EGOERATAN KOMUNIKATU BESTEAREKIN ?)
Hemen ere ez-ahozko komunikazioa eta berdintasunezko komunikazioan izateko joera, baldintza nagusiak dira harremanean sartzeko.

Lan-denbora honek taldea eraman du KILT formakuntzako bi “tresna multzoren” finkatzera, eta bakoitzaren baitan, pedagogia-edukiak egituratzen dituzten moduluak finkatzera.


- 1. multzoa – KULTURA ETA GIZARTE ETA OSASUN LAGUNTZA
 - 1.1 modulua – Antropologia eta soziologia ulermenerako gakoak.
 - 1.2 modulua – Lan eremuko herriaren eta lagunduak diren komunitateen gaurkotasuna eta historia politiko eta soziala.
 - 1.3 modulua – Gizarte-osasun determinanteak. Ibilbide indibiduala kontuan hartzea.
- 2. multzoa – HARREMANA, KOMUNIKAZIOA ETA GIZARTE-OSASUN LAGUNTZA
 - 2.1 modulua – Profesionalaren eginkizuna eta tokia, eta interbentzioaren testuingurua.
 - 2.2 modulua – Besteekiko komunikazioa eta harreman-psikologia.
 - 2.3 modulua – ikuspegi kolektibo baten aldeko komunikazio estrategia eta komunitatearen parte hartzea.

Hasierako egituraketa hau bi zeharkako pedagogia-itemetan oinarritzen da : alde batetik murgiltzea eta egoeran jartzea, bestetik hizkuntza hurbiltzen eta praktikatzen saiatzea.

2. Pedagogia-ekoizpenaren esparru orokorra

KILT formakuntza prozesuaren xede pedagogikoa **pertsonaren aldaketa dinamikoa da**, lehen lehenik **pertsonal eta profesional esperimentazio batzuen bidez** gertatzen dena.

2014ko Bartzelonako bilkuran (apirilean) eta Kosicekoan (ekainean) , pedagogia ibilbidea 6 modulu nagusiren inguruan egituratu da eta kronologia batean sartu :



1. multzoa

1.1 modulua

Antropologia eta soziologia ulermenerako gakoak

1.2 modulua

Lan eremuko herriaren eta lagunduak diren komunitateen gaurkotasuna eta historia politiko eta soziala

1.3 modulua

Gizarte eta osasun determinanteak. Ibilbide indibiduala kontuan hartzea

2. multzoa

2.1 modulua

Profesionalaren eginkizuna eta tokia, interbentzioaren testuingurua

2.2 modulua

Besteekiko komunikazioa eta harreman-psikologia

2.3 modulua

Ikuspegi kolektibo baten aldeko komunikazio estrategia eta komunitate-partehartzea.

Eskema honetan, ekarpen teorikoak esperimendazioaren osagarri gisa pentsatuak dira (eta ez oinarri). Kilt formakuntzaren xedea da norberak bere nortasuna bestearen egoerari idekitzeko eta egokitzeko gaitasuna landu dezan.

KILT bestelakotzen duen prozesua da, norberaren irudikapenetan eta besteekilako harremanetan aldaketa handiak ekar ditzakeena. **KILT zentzu prozesu bat da**, pedagogia-prozesu bilakatuko dena. Prozesu horren ibilbidean, Kilt-eko pedagogoen zedarrak batzuta eman dituzte, ezinbestekoak diren urratsak, gaitasun beharrek mailak, aditza hauen bitartez adieraz daitezkenak

Hastapenean:

* Nere burua galdekatu

Bitartean:

* Nor den eta nor naizen jakin

* Nere tokia(jarrera) aurkitu

* Bestearen gana joan

* Bestea deskubritu

* Hari egokitu, lagundu, sustatu

Bukaeran:

* Kurios egon

Honela zehazten da **KILT pedagogia-ibilbidea**:

KILT prozesua

1.1. modulua

1.2 modulua...

Nere burua galdekatu

Nor den eta nor naizen jakin


Nere tokia(jarrera) aurkitu

Bestearen gana joan

Bestea deskubritu

Hari egokitu, lagundu, sustatu

Kurios egon



Ibilbide horretan, modulu desberdinen muntaketa eta elgarrekilako lotura aldaketa horretara eramateko pentsatua da.

Gehiago dena, modulu horietan sartuko den **tresna bakoitzak ere** (*izan dadin murgiltze ariketa, egoera batean jartzea, simulazioa, rol jokoa edo beste*) **zentzu prozesu horren logikan sartu behar du, erran nahi baita formatua den profesionalari kilt ibilbideko pausu desberdinen zeharkatzeko aukera eman behar diola** '(nere burua galdekatu, nor den eta nor naizen jakin, nere tokia aurkitu, bestearen gana joan, bestea deskubritu, hari egokitu eta hura lagundu, sustatu, azkenik beti kurios egon).

Logika berezi horretan da beraz **KILT formakuntza modulu europarra** eraikitzen ari. Egitasmoak tresna desberdinak eskainiko ditu formakuntza sekuentziak plantan ezartzeko (hauek 70 eta 200 orenen artekoak izanen dira bakoitzaren beharren eta pedagogia-egituraren arabera)...

...baita ere, etorkizunean, kultura ezagutzeko kitak (beharrean lurralde batetik bestera truka daitezkenak) eta jarrera aldaketa lagunduko dituzten komunikazio euskarriak, nortasuna eta aniztasuna hobeki kontuan hartzeko.

KILT proiektuaren partaideak

Etxarriko AFMR zentroak gidaturik, **KILT** egitasmoak biltzen ditu izaera desberdineko eragileak

- **Euskal Kultur Erakundea**, zeinak beste parte hartze eremuetan gisa horretako tresnak garatu dituenak,
- **Emilia-Romagna (IT) Eskualdeko Osasun Agentzia**;
- **CEFAL**, Boloniako gizarte-lan eta laguntza sozioprofesionalaren alorreko formakuntza erakundea (IT);
- **SPARK**, Kosiceko gizarte-lan alorreko formakuntza egitura (Eslovakia);
- **ECKVRNM**, ijitoekin lan egiten duen gizarte-erakundea, Kosicen (Eslovakia);
- **NHS LOTHIAN**, gehien bat immigratuekin lan egiten duen Edinburgheko ospitale publikoa (Eskozia);
- **Vall d'Hebron Research Institute**, Bartzelonako ospitalearen partaide den fundazioa, gisa horretako tresnak garatzen dituen gizarte eragile katalanentzat (Katalunia).



	10/2013	11/2013	12/2013	01/2014	02/2014	03/2014	04/2014	05/2014	06/2014	07/2014	08/2014	09/2014	10/2014	11/2014	12/2014	01/2015	02/2015	03/2015	04/2015	05/2015	06/2015	07/2015	08/2015	09/2015
WP 1 <i>Coordination/Gestion</i>	❶		❷							❸ ❹														❺ ❻
WP 2 <i>Production des outils génériques</i>						❄ 1	❄ 2		❄ 3															
WP 3 <i>Production des outils opérationnels et tests</i>																						❄ 4		
WP 4 <i>Diffusion Communication</i> WP 5 <i>Dissémination Exploitation</i>						☆									☆						☆			☆
WP 5 <i>Evaluation</i>																								

- ❶ : Comité de Pilotage 1 – Bologne
- ❷ : Séminaire 1 – Etcharry
- ❸ : Comité de Pilotage 2 - Edimbourg
- ❹ : Séminaire 2 - Edimbourg
- ❺ : Comité de Pilotage 3 – Barcelone
- ❻ : Séminaire 3 - Barcelone

- ❄ : Rencontres du « Groupe de Production des Outils »
1 : Edimbourg ; 2 : Barcelone ; 3 : Kosice ; 4 : Etcharry

- ☆ : Séquences de diffusion dans les 3 pays

WP1

Koordinazioa / kudeaketa

WP2

Tresna generikoen ekoizpena

WP3

Tresna baliagarrien ekoizpena eta proba

WP4

Hedapena

Komunikazioa

WP5

Barreiatzea

Ustiatzea

WP6 Ebaluaketa

- 1) 1. batzorde eragilea – Bolonia
- 2) 1. mintegia – Etxarri
- 3) 2. batzorde eragilea – Edinburgh
- 4) 2. mintegia – Edinburgh
- 5) 3. batzorde eragilea – Bartzelona
- 6) 3. mintegia – Bartzelona

“Tresnen ekoizpen taldearen” topaketak

1. Edinburgh; 2. Bartzelona; 3. Kosice; 4. Etxarri

Hedapena sekuentziak 3 herrietan